

Iruñean, Conde Oliveto 2-2.eko ordezkari-tza berrian bere lehen batzarrea, 1985. eko Ekainaren 27an arratsaldeko seietan, egin du Euskaltzaindiak. Bildu dira: L. Villasante Euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. P. Andiazabal, J. Apezetxea, J. A. Arana, J. Atxa, J. M. Azpiroz, R. Badiola, M. Izeta, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, M. J. Urmeneta eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Aurreko batzar agiria onartu da.

### **Ordezkaritza berria**

Eguerdiko hamabietan egin da Nafarroako Ordezkaritza berriaren aurkezpena. R. Felones Kultura eta Hezkuntzako Sailburua, L. Villasante Euskaltzainburua, J. Iturbide "Principe de Viana" Elkargoko zuzendaria, J. M. Satrustegi idazkaria eta P. Altuna Gramatika batzordeburua eseri dira mahai aurrean. Nafarroako ordezkariak hitz bitan ongietorria eman ondoren batzartuei, L. Villasantek irakurri du agur eta esker oneko bere hitzaldia. Bi gertakari garrantzitsu bazirela eguneko gaietan, adierazi du; ordezkari-tza berrian sartzea eta Iruñeko Biltzarrean gramatikari buruz zabal-dutako txosten nagusiaren argitalpena, alegia. Bere egunean lau Diputazioek sortuta-ko elkargoa dela Euskaltzaindia, azpimarratu du, herrialdeak banaturik badaude ere Euskal Herriak hautsi gabe diruela agertuz. Egoitza berriagatik Nafarroako Go-bernuari eskerrak emanez amaitu du Euskaltzainburuak bere txostena.

P. Altuna mintzatu da gero Gramatika batzordearen izenean liburuaren aurkez-pena egiteko. Euskaltzaindiaren X. Biltzarrean onartutako lana, edozein hurrek mundura etortzeko behar duen bederatzi hilabeterekin datorkigula esan ondoren, P. Lafitte lehen batzordeburuarentzat izan ditu oroitzapenik hoberenak. Perpau baku-naren lanaren ondok beste urratsa aurreprogramatzen ari direla esatean, bost bat urtera daukagun Larramendiren hirugarren jaiot-mendeurrena helburu adierazgarri-tzat eman du, lana amaitzen saiatzeko.

R. Felones baikor agertu da bere asmoetan. Euskaltzaindiaren lana ezagutzen duela eta elkarrekiko lanean Gobernuak daraman bidean aurrerapen baliotsua dela egoitza berriaren lorpena, esan du. Iruñeko Biltzarrean sortutako ezaupenak beste

lotura batzu sortu dituen bezala, harreman hauek indartuz joango direla uste du. Kultura eta Hezkuntza Sailak arreta eta begiramendurik onenaz ikusten omen du Euskaltzaindiaren lan isila.

### Euskaltzainen bilkura

Arratsaldeko lauretan bildu dira euskaltzainak hileroko gaiei jarraipena eman nahirik. P. Lafitte zenaren hutsunea betetzeko irekia zen bi hilabeteko epea gaur amaitzen dela, aditzera eman du Euskaltzainburuak. Une horretaraino aurkeztutako izen bakarra, P. Charriton Baionako lankidearena izan da. Berau J. Haritschelhar, J. L. Davant eta J. San Martin euskaltzainek izenpetu dute.

*Maileguzko hitzak.* Eguneko gaietan lehena, mailegu berrietako VII.puntua da: hiru kontsonantezko multzoak bere baitan dituzten hitz maileguak euskaraz nola idatzi behar diren, alegia. P. Altuna, F. Ondarra eta X. Kintanak elkarrekin taxututako erabakigai eztatatu ondoren, Euskaltzaindiak honako adierazpen hau onartu du:

*Maileguzko hitzak: VII.puntua.* “Hitz mailegatuak jatorriz hiru kontsonantezko multzoa dutenean bere baitan, euskarak ere hiru kontsonanteak gordeko ditu: hala nola, *institutua, konstituzioa.*”

Ez, ordea, euskara idatzian aspaldidanik erabili diren hitzek hizkera arrunteko esanahia dutenean: esate baterako, *istant(e), sustantzia.*”

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren gutun bat jaso da, bizkaieraren idatzizko eredu bultzatzeko asmoz burutu duten, “Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan” izeneko lanarekin batera. Edukina aztertzea eta oharrak egitea eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Euskararen joskera arazoa ez dagokio soilki bizkaierari eta ez da batera erraza erabakiak hartzea. Gramatika batzordeari bidaliko zaio azter dezan. Horrela jakineraziko zaio Hezkuntza Sailburuari.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko Euskara-Arazoetarako Zuzendaritzak, bere aldetik, literaturgintzan diharduten idazleei laguntzak banatzeko epaimahai-ordezkari bat eskatu dio Euskaltzaindiari. A. Irigoyen jauna izendatu da.

Getxo-ko Udalak J. A. Agirre Lekube zenari buruz historia arloko ikerlan batentzat deia zabaldua duelarik, epaimahairako ordezkari bat eskatu du. Pello Salaburu izendatu da.

Bilboko Ateneoak J. M. Barandiaren euskaltzainari eskaintzen dion omenaldirako gomita jaso da. Omenaldi hori gaur eta hemen bilduak garen une berean izateko denez, ezinezkoa gertatu da inor joatea. Gutuna, bestalde, azken orduan jaso da. Erantzunean argi geldi bedi.

Beste batzuren artean, Itzultzaile Eskolako eskari bat ere iritsi da, bere ekintzek merezi diguten eritzia lortu nahian. Gutuna bidaltzea erabaki da.

### Batzordeen berri

*Gramatika.* Eguerdian plazaratu den Gramatikaren txostenak “Hizkuntza batzordea” dela dio egilea. Nehork ez daki aldaketa horren berririk. Inprimategiko

errua dateke. **Euskera** agerkarian agertzeoak diren X. Biltzarreko beste txostenentzat milioi erdi inguruko diru laguntza eskaini du Nafarroako Gobernuak. Batzorde lanen ordainketa aipatu da. Geroari begira, perpaus konposatuaren lanari hasiera eman omen zaio.

*Ekonomia.* Diru-kontuen balantzea aurkeztu du J. J. Zearretak. Dirudienez, azkenaldi honetako egoera gaitz da eta atzerapenak berehala ordainduko dira. Batzorde honetan euskaltzain bakarra dagoenez besteren bat gehitzea eskatu dute bertan direnek. J. San Martin eta P. Salaburu izendatu dira.

Campion-Broussain azpi-elkargoko idazkari kargua uztea eskatu zuen J. M. Satrustegik Maiatzeko batzarrean. Eragozpenik ez dagoenez, C-B elkargotik kanpo gelditu da oraikoan. *Orotariko euskal hiztegia* aipatu da gero eta K. Mitxelenarekin hasitako harremanak aurrera omen doaz.

*Etsaminak.* Iruñean egin diren etsaminen berri eman du J. J. Zearretak. 261 etorri ziren azterketa idatzira eta hauetatik 91 heldu ziren ahozkorra. Beste probintziatarako hainbat aurkeztu ziren, Gipuzkoatik etorriak, batez ere. Hizkuntz Eskola Ofizialaren esku uzteko hartu zen erabakia aurtengoz ezinezkoa gertatu eta bion etsaminak batera egin behar izan ziren. Galdera soila orain, hau da: jarraitu behar al du Euskaltzaindiak Nafarroan etsaminak egiten? Eta jarraitzekotan, nor arduratuko da horretaz? Lekarotzen desagertu zen batzordea, eta lagundu gaituzten pertsonak adiskide bezala etorri omen dira. Esker ona agertu behar zaie, noski.

Udazkeneko deiari buruz oraintxe hartu behar da erabakia. Eztabaida luze baten ondoren eta hartarako bideak badirela jakinik, ez gehiago euskararen azterketarik eginga erabaki da. Honako adierazpen hau zabaldu da batzarrea amaitu ondoren:

“Euskaltzaindiak, beste eginkizun askoren artean, euskararen azterketak ere antolatu izan ditu azken urte hauetan.

Gaur egun badira Euskal Herrian honelako gaitasun agiriak banatzen dituzten elkargo eta ikastetxeak eta, Euskaltzaindiaren ustez, behin-behineko ahalegin hark bete du bere egitekoa.

Euskaltzaindiak hartako diren erakundeen esku uzten du euskararen gaitasun agiriak ematea eta ez du aurrerantzean Nafarroan ere azterketarik gehiago egingo.”

*Azkue biblioteca.* J. A. Aranak azkenaldi honetan sartutako liburuen zerrenda banatu du. Zer-nolako gaiak sartzen diren gure Bibliotekan, galdetu zaio. Euskara eta euskal kulturari dagozkionak, Linguistikakoak euskara zuzenean ez ukitu arren, eta Euskal Herriarekin zerikusirik dutenak, izan ohi direla gehienez erantzun du A. Irigoyenek. Liburuak eta aldizkariak nahas-mahas ikusten dituela zerrendan, esan du J. Haritschelhar-ek, eta ez ote lirakekeen berezi behar. Sarrera liburuaren zerrenda orokorra dela, erantzun dio liburuzainak, eta beste sailkapen batean egin behar litzatekeela banaketa. Munduan zehar banaturik dauden euskal idazkien baliapenerako zer egin behar den ikustea komeni denez, mikrofilma, mikrofitxa ala beste bidez lana egiten hasi behar den jakin behar da lehenik. Horren kostuen berri ere eskatu omen dute. Egoitza berrira liburuak aldatzeko lana zertan den, galdetu du norbaitek. Zama handia denez liburuena, etxearen egoera ikusi behar dela lehenik eta horren zain daudela, izan da arduradunen erantzuna.

*Onomastika.* Batzorde honek Bilbon egin berri duen bileraz mintzatu da J. L. Lizundia. “Orotako Izendegia” edo euskaldunen artean egunero erabili ohi diren izenen zerrenda egin beharra ikusten da: Emilia, Nicasio, nahiz, Dinamarca, Egipto bezalakoena, alegia. Euskal Herrian bertan ere, auzo, baserri, etxe-izen, ibai, mendi eta abarren bildumak ez dira eginak. Toki-izen eta paper zaharretako husketak jasoko dituen sorta berria aipatu da *Onomasticon Vasconiae* edo beste izen bat emango zaiolarik. Bilketa egiteko metodologia garrantzitsua da eta Jaurdunaldiren batzu ez lirateke gaizki etorriko, horretan saiatu diren kanpoko ikerleen esperientziaz, batez ere, jabetzeko. Erakundeetatik datozen galderak, deituren euskaratzeak sortzen dituen arazoak eta herri izenen aldatzeko dauden legeak, aipatu dira azkenean.

### Txostenak

“Baztango hiztegi ttipia” izenburuarekin, herriak erabili ohi dituen eguneroko hitz arruntak ekarri ditu Mariano Izeta, euskaltzain urgazleak. Horietako batzu Azkuek bildu ez zituenak, eta beste asko jasorik dauden arren, esaera berezi eta ahoskatze ez-ezagunak dituztenak.

J. M. Jimeno Jurio jauna santuen izenekin desagertu diren toki-izenek mintzatu da. *Ardoi/Santa Cruz*, *Zizurren*; *Murko/San Juan*, *Atondon*; *Abaxita/S. Gregorio*, *Asiainen*; *Zaia/Santa Engrazia*, *Egillorren*. *San Kris* eta *Santa Kris* ez da herri batean bakarrik agertzen. *San Costobaro* (Subiza), *Sandichusti* (Guendulain). Perdon mendateak, *Errentega* eta *Perdonantza bidea* hitzak ere gorde ditu agiri zaharretan.

Elkarrizketan, *Costobaro* eta *San Cristobal* iturri bereko hitzak izan daitezkeela, esan da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburu*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*